

**ZENBAT BURU**  
Jon Peli Uriguen

**ERREPORTAJEA**  
Elaoibartarrak  
unibertsitatean  
irakasle

# BARREN

2000ko otsailaren 18a  
VIII. urtea - 309. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

## **UDALETXETIK**

Udalak dirua  
itzultzea eskatu dio  
Aldundiari

## **GEHIGARRIA**

Zaharrak Berri

## **BERBETAN**

Musti Hadi,  
Ceutatik  
Elgoibarrera



# Udaltzainak plangintza berriaren agindutara



# Azicerien 9.0 egunak

## GARATE

Jantzidenda




Txamarrak 7.995 pta.

Prakak, jertseak eta alkondarak 3.995 pta.

Poloak 2.995 pta.





JON PELI URIGUÉN

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeraten dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

## Solidaritatea

**H**itz borobila, ponposoa, askotan ahotan darabilguna. Era askotara uler daiteke solidaritatea. Zenbaitzuentzat badirudi norbere burua lasaitzeko modu bat besterik ez dela, besteengana-ko eskuzabaltasuna erakutsi nahian giza-kiongan naturala den berekoikeria ezkutatu.

Solidaritatea ezin dezakegu ulertu bakarrik, urrutiko herrialde behartsu baten alde antolatzen diren ekimenetan parte hartzea bezala era batean edo bestean (hori ere txarra denik ezin esango dugun arren, kontzientzia garbitzeko asmoz bada ere). Hala, solidarioagoa ote da modan jartzen ari diren 'TelemaratOn' horietako batean ez dakit zenbat mila duro eskaintzen dituen pertsona diruduna, duen apurra inguruan beharra duenarekin banatzeko prest dagoena baino? Ez dut uste inork hori benetan pentsa dezakeenik.

Egungo gizartean ezin esango dugu solidaritatea hedapen handiko balorea de-

nik. Ikusi besterik ez dago duela gutxi El Ejido-n gertaturikoa. Badirudi hori beste leku batetan gertatzen den zerbait dela, gurekin zerikusirik ez duena, gure inguru-

ruan horrelako astakeriarik gertatuko ez dela. Edo, beharbada, baliteke egoera hori sekula hemen eman ez delako izatea guretzat horren arrotza. Etorkinekiko begirune berbera mantenduko du jendeak orain urruti datusagun egoera eguneroko eta gertuko bilakatzeko zaigunean? Ez dezagun pentsa, beraz, egoera horiek beste leku eta gizarte batzutan gertatzen direnik. Prest egon beharko genuke zenbait urteren bueltan (batzuek uste dutena baino lehenago agian) horrelako egoera bati aurre egin beharra izateko.

Solidaritatea behartsuari laguntzeko borondate bezala ulertzen badugu, kontutan izan behar da behartua ez dela txiroa soilik (txiroa diru beharrean dagoena izanik), beste behar batzuk ere badirela, eta etorkizunean izango direla.

**"Solidaritatea ezin dezakegu ulertu bakarrik urrutiko herriaide behartsu baten alde antolatzen diren ekimenetan parte hartzea bezala"**

**"Egungo gizartean ezin esango dugu solidaritatea hedapen handiko balorea denik. Ikusi besterik ez dago duela gutxi El Ejido-n gertaturikoa"**

lik (txiroa diru beharrean dagoena izanik), beste behar batzuk ere badirela, eta etorkizunean izango direla.

## Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Publizitatea:  
re 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazardegi, Jon Eugi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIDA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, I doia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*gizarte-ekintza  
obra sociat*

**41 DANOBAT**

**41 4301TI**  
GRUPO DANOBAT

## Aupa Sanlo Esle{ Taldeal

Esle{ esan "aluzinaturik" utzi nintzen J.K.S.ren aurreko asteko idatziak. Izan ere, Elgoibarko "Sanlo" Eskubalo Taldearen izenak horrelako gogoetak sortarazteak harrিতuta utzi nau.

Badirudi J.K.S.k ez dakiela kirol klubek, entitate pribatuak izanik, nahi duten izena jartzeko aukera eta esku-bidea dutela. Eta, are gehiago, ez daukate inor ordezkatu beharrik.

Suposatzen dudanez, Sanlo Eskubaloi Taldeko arduradunek nahikoa lan izan dute beraien 7 ekipoetako 105 kirolariak mugiarazten, antolatzen, entrenatzen, ekipatzen eta finantziazten. Baina, ez, bolondres modura zoro gutxi batzuk beraien semeengatik edota maite duten kirolarengatik egindako lan hori goraiatu beharrean, J.S.K.ri klub horren izenak bakarrik ematen dizkio buruhaustek.

- "Mister", gaur zer egingo dugu, fisiko ala baloia?

- Gaur, Sanlora bi buelta "a ritmo". Nahiko gogorra izango da gaurko entrenoa.

- Jo, "mister". Sanlora baino, hobe patxanga bat baloiarekin!

J.S.K.k elkarrizketa hori entzungo balu segituan ulertuko luke Elgoibarko Eskubaloi Taldeak zergatik daraman Sanlo izena.

**R.M.**

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikaluta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu dalu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**



- "Ermuaranbide kalean bizi den herritar bat benetan haserre etorri zaigu honako kexa honekin.

"Ermuaranbide kaleko obrek sortzen duten zikinkeria eta lokatza jasangaitzak dira. Euria egiten duenean guztia lokatzen da eta euririk egiten ez duenean, berriz,

hautsez betetzen da dena. Bertan bizi garenek ezin dugu egoera hau eehiago jasan, leihorik ere ezin dugu ireki hautsaren CITUZ, eta lokatza dela eta, pausorik ezin emanda ibiltzen gara sarritan. Bestalde, larunbatetan inguru horretan autoak aparkatzea debekatu beharko litzateke, jendeak edozein modutan aparkatzen baitu".



- Gazte batek Udaletxeko agiri hau eta lerro hauek bidali dizkigu: "Erreparatu al diozue inoiz Elgoibarko Udalaren *Kontadoren irakunketa zerbizuari?* Egizue oraintxe! Patxada piska bat hartu eta goitik behera irakurtzeko gomendioa luzatu nahi dizuet. A, eta ez baduzue ezer ulertzen, ez estutu, besteoi ere beste horrenbeste gertatu zaigu eta".

#### KONTADOREN IRAKUNKETA ZERBIZUA

Hilaren.....an (eguerdiko, arratsaldeko goizeko) .....eta zure etxera joan eta bertan ez zaundenez, zera Kontadorea ezin izan dugu irakutri; hori dela eta him egun barru Kontadorean adierazten duanaz zentzat gastatu den Errenta eta Lekapeneko Bulegoan editzera eman beharko duzu 943 74 44 14 telefonoak, hori egiten ez bada, gutxiengoe kobratuko da eta huenngo irakurtzen denean arautuko da zuzkiketa.

- "Mintxetara, Basarte auzora eta I.M.H-ra joateko bideen egoera eskasa salatu nahi du emakume batek, "lehen gune horiek pasealeku soilak ziren, baina zonaldea haziz joan ahala, bertara joateko pasabideak beharrezkoak bilakatu dira. Ermuaranbide kalean ez dago azera triste bat bera ere. Bestalde, Mekanikaren atzekoaldetik eta autopistako zubi azpitik pasatzen den bidea oso egoera kaskarrean dago, eta euria egiten duenean lokatzez betetzen da. Bide hori jende askok erabiltzen du, batez ere, ikasleek. Beraz, bidea asfaltatu eta argiak jarri beharko lituzkete".

### ESKERTZA

*2000ko otsailaren 9an, 75 urte zituela hil zen POMPEYO GONZALEZ ANDRESen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Elgoibartarrak UNIBERTSITATEAN irakasle

*Unibertsitateko ikasleek azterketa garaia pasa berri dute, eta ziurrenik gazte gehiago ikusiko ditugu kalean heynendik aurrera. Hala ere, aste hoyzetan ez dugu ikasleetaz hitz egingo, irakasleetaz baizik, unibertsitatean lan egiten duten irakasle elgoibartarretaz, hain zuzen. Unibertsitateko irakasle izatera nola ailegatu ziren fakini nahi izan dugu. Hori dela-eta, Jesus Mari Makazagarekiz, Farynazia eta Filologia fakultateko irakaslearekin, eta Alberto Ansuategirekin, Sarririkoko Ekonomi Zientzien fakultateko irakaslearekin, hitz egin dugu beraien irakasle lanari buruz.*

tean. Bestelako irtenbideak, itzulpengintza, administrazio lanak, testugintza... dira". Irakaskuntzan aritzeko doai eta izakera bereziak izatearr garrantzi gehiegi ez eman arren, gustuko lana izatea beharrezkoa dela aipatu digu, "ez da beste edozein lan bezalako, neke handia sortzen du egunero-egunero ikaslearen aurrean pasatu

desberdintasunak aipatzeko eskatu diogu Jesus Mariri, "batetik, eskola ordu gehiago dituzte institutuan. Institutuan irakasleei ez zaie ikerketa egitea eskatzen eta egin nahi duenak, guk baino askoz zailagoa du eginkizun hori, baliabide raltarengatik, batez ere. Bestetik, laegitan-tzen zait adin txarragoan egon daitezkeela ikasleak institutu garaian. Ikasle nintzeneko orortzapenek engainatzen ez banaute behintzar. Jesus Marik jadanik izan ditu zenbait ikasle elgoibartarrak bere gelan, "urtero izan ditut elgoibartarrak. Ondo tratatzen ditut, jakina. Hori-xe bakarrik falta zen! Orain gertatzen zaidana da ez ditudala elgoibartarrak ezagutzen. Izan ere, bagoaz poliki-poiki, adinean sartzen".

**"Irakastea, ez da beste edozein lan bezalako, neke handia sortzen du egunero ikaslearen aurrean pasatu behar duzun proba hori gaintzectkil**

J.M. MAKAZAGA

behar duzun proba hori gaintzectkil. Bestela, irakasteak pazientzia handia izatea eskatzen du eta baita ikasleekiko tratuan irekia izatea ere". Irakasle izatearen alde onak aipatzeko eskatu diogunean, ikasten jarraitzeko aukera ematen diola aipatu digu Jesus Marik. Horretaz gain, ikasleek ematen dituzten satisfakzioegatik ere nne-rezi duela gaineratu du, "oso inportantea da ikasle taldea nolako den eta hauek izan dezaketen motibazioa. Gutxi badaukate nahigabe asko eman ditzakete-eta". Alde txarrak ere baditu irakaskuntzak, ordea. "Ikasleak ebaluatu beharra gogorra egiten zait, eta bestetik, osasun psikikoak agintzen duenaren kontrara, ez dakigu gure lanarekin deskonektatzen, letengabe' dihardugu lanean, buruari eragiten, txikiteoan gabiltzanean ere". Azkenik, Institutuko eta unibertsitateko irakasle

Albeto Ansuategi, 31 urteko elgoibartarrak ekonomia ikasketa zabalak ditu; Ekonomian Lizentziatua EHU, Ekonomiako Doktoradutza Kurisoak EHU eta Ekologia eta Ingurugiroaren Ekonomia

## Alberto Ansuategi

Albeto Ansuategi, 31 urteko elgoibartarrak ekonomia ikasketa zabalak ditu; Ekonomian Lizentziatua EHU, Ekonomiako Doktoradutza Kurisoak EHU eta Ekologia eta Ingurugiroaren Ekonomia



**EUSKARA TEKNIKOKO IRAKASIIA**  
Gazteizko Farmazia eta Filologia Fakultateetan

## Jesus Mari Makazaga

Jesus Mari Makazaga elgoibartarra, Euskal Filologian lizentziatua da. Gaur egun Farmazia eta Filologia fakultateetan Euskara Teknikoa irakasten du. Euskal Filologiako ikasketen irtenbide ohikoena irakaskuntza dela aipatu digu, "filologia ikasten hasita, badakizu, normal samarra izan daiteke irakasten arnaitzect: euskaltegiren batean, institutuan nahiz unibertsita-





( EKONOMIAKO IRAKASLEA  
Ekonomi Zientzien Fakultatean )

**"Irakasle-ikasle erlazioan faktore askok garrantzi handia dute: ikasle kopuruak, ikasleen interesak, partehartzea bultzatzeko irakaslearen trebetasuna etabli.** ALBERTO ANSUATEGI

tzan aritzeko asmorik, baina aukera sorzenezan heldu egin nion. Geroago kon-turatu naiz aukeraketa egokia egin nuela". Albertoren ikaskide gehienak bankeixee-tan eta enpresa pribatuetan ari dira eko-nomilari gisa lanean. Klaseak ematea uni-bersitateko irakasleen betebeharretariko bat besterik ez dela azaldu digu, "kontra-tuaren arabera astean 37 ordu eta erdi egin behar ditugu. Ordu hauetatik 8 kla-seak emateko, 6 ordu tutoretzarako eta gainontzekoak klaseak prestatzeko, iker-ketarako eta lan instituzionala burutzeko dira. Dena dela, ze;aztasunez neurtu dai-tezkeen lan orduak, klase eta tutoretzeta-koak dira. Besteak norberak kontrolaizen ditu. Nire kasuan, irakaskuntzaz gain denbora gehien kentzen didana doktore-go tesia idaztea da. Baita tesiarekin erla-zio zuzena duten beste aktibitate batzuk ere. Ikerketa proiektuetan eta kongresue-tan parte hartzea, eta aldizkari zientifiko-etarako artikuluak idaztea, besteak bes-

te". Albertok onartzen du irakasleen eta ikasleen arteko eriazioet nahiko hotza izate dela unibertsitatean, baina ez lukeela zertan beti horrela izan behar aipatu digu, "irakasle-ikasle erlazioan faktore ezberdi-nek garrantzi handia dute: klaseko ikasle kopuruak, ikasleen irakasgaiarenganako interesa, partehartzea bultzatzeko irakas-leak duen trebetasuna etab". Albertori ere, klasean elgoibartar ikasleak izatea tokatu izan zaio, "atsegina da klaseko lehen egu-nean aurpegi ezagun batzuk behintzat ikustea".

## Unibertsitateko irakasle izateko baldintzak

Unibertsitateko irakasle izateko lizen-tziatura gradua izan behar da gutxienez. Irakasle gisa aritzeko lehen baldintza hori bete ostean, unibertsitatean sartzeko bi era daude: irakasle lagun bezala (kontratu ad-ministratiboa) edo titular bezala (funtzio-narioa). Lehendabiziko kasuan lizentzia-iva izatea nahikoa da. Deialdia egiten da, kontrataziorako komisio batek kandida-tuen meritoak aztertzen ditu eta aukerake-ta egiten da. Bigarren kasuan, doktoretza gradua izatea nahitaezkoa izaten da eta prozedura aurrekoaren antzerakoa da; deialdi publikoa eta oposaketa.

Doktoradutza Kurtsoak Yorkeko Uniber-tsitatean (Ingalaterra) dauzka eginak. Egun, Sarrikon (Ekonomi Zientzien Fakul-tatea, Euskal Herriko Unibertsitatean) da irakasle. Bertan, Makroekonomia, Pen-baera Ekonomikoaren Bilakaera eta In-gu rug iroaren ekonomia ikasgaiak ira kas-ten ditu. Duela 10 urte hasi zen irakasle lanean, "karrera bukatu berritan, Sarri-kon 'euskal adarra' sortzen ari ziren. Makroekonomia irakasteko irakasle ele-bidun bat behar zutenez, aurkeztu egin nintzen eta aukeratu egin ninduten. Ka-rerra hasi nuenean ez nuen irakaskun-

## Irakasle elgoibartarrak unibertsitatean

Bi irakasle elgoibartarren testigantza jaso dugu adibidetzat, baina unibertsitateko irakasle elgoibartarren zerrenda luzea da. Guztien izenak eta non egiten duten lan bilatzen saiatu gara eta honako zerrenda hau osatzea lortu dugu. Unibertsitatean zerrenda eskatu arren, ez digute bidali eta handik eta hemendik lortutako zerrenda da honakoa.

Alberto Ansuategi	EKONOMI ZIENTZIEN FAKULTATEA - Sarriko
Esteban Antxustegi	FILOSOFIA FAKULTATEA - Donostia
Josu Arriola	MONDRAGON UNIBERTSITATEA - Arrasate
Migel Arozena	BILBOKO INJINERUTZA FAKULTATEA - Bilbo
Jon Aurrekoetxea	MONDRAGON UNIBERTSITATEA - Arrasate
Julian de Marcos	INDUSTRI INJINERUTZA TEKNIKORAKO UNIBERTSITATE ESKOLA - Eibar
Ander Errasti	MONDRAGON UNIBERTSITATEA - Arrasate
Gotzon Garate	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA - Bilbo
Elena Galdos	DEUSTOKO UNIBERTSITATEA - Bilbo
Itziar Gurrutxaga	MONDRAGON UNIBERTSITATEA - Arrasate
Juan Igartua	ZUZENBIDE FAKULTATEA - Donostia
Roman Garate	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA - Bilbo
Jesus M. Makazaga	GAZTEIZKO FARMAZIA eta FILOLOGIA FAKULTATEAK - Gasteiz
Elena Ostolaza	ZIENTZIA FAKULTATEA - Leioa
Migel A.Zubiaurre	EKONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Sarriko
Maite Zelaia	ZUZENBIDE FAKULTATEA - Donostia

Urtarrila hil heltza izan da lan istripuei dagokienean

# Zein da hainbeste lan istripu izatearen arrazoia?



**JUAN ALBARRAN**  
58 urte, komertziantea

Ez dira neurri egokiak hartzen istripuak ebitatzeko. Enpresarioek eta Gobernuak berak ere segurtasun neurri gehiago ipini beharoko lituzkete.



**J. ANTONIO GONZALEZ**  
63 urte, ilepaintzailea

Arauk ez dira errespetatzen. Enpresariei segurtasun neurriak eskatu behar zaizkie, baina baita langileari ere neurri horiek bete ditzan. Effesponsabilitate kontua da dena.



**ISABEL CANO**  
62 urte, etxeoandrea

Langileak ez dira baldintzarik egokienetan aritzen. Ikerketa egin beharko litza-teke istripuen arrazoiak zein diren jakiteko eta erruduna zein den ikusteko.



**MAXI BARRIGA**  
43 urte, etxeoandrea

Zorte txarra izan daiteke arrazoietako bat, baita segurtasunik eza ere. Nik neuk etxean lan egiten dut eta ez dakit erabat seguru egon naitekeen.



**ANTONIO ALVAREZ**  
70 urte, jubilatua

Gauzak prisaka egiten dira askotan eta horrek bere ondorioak ditu. Enpresariek ezezik langileek ere hartu behar dituzte segurtasun neurri egokiak.



**MIREN LORE GONZALEZ**  
20 urte, etxeoandrea

Segurtasun neurririk gabe lan egiten dute askok, ez da kasualitate hutsa izan. Nik enpresariak segurtasun neurri egokiak jartzera behartuko nituzke.

**tir**

**BOTOA KORREOZ EMAN NAHI  
BADUZU DEITU ONDORENGO  
TELEFONOETARA:**

943 74 08 22 (Karmele)  
943 74 20 19 (Miren)  
607 43 56 16 (Jose Mari)




**brkizano**

San Frandisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



**I. URTEURRENA**  
1999ko otsailaren 17an, 62 urte zituela hil zen **MIGUEL EIZAGIRRE ARRIZABALAGA**ren oroimenez **I. URTEURRENEKO MEZA** izango da Madalaka elizan larunbatean, hilak 19, arratsaldeko 19:30etan.  
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





# ISPILUARI BEGIRA



Ct

g0721

Geldok


**S ANDALO mertzeriakoa**

- Zer bilatzen du jendeak, praktikotasuna ala sentsualitatea? - Erosotasuna. Baina badago mopa sexyak eskatzen dituen jendea ere.
- Gizonezkoek erosten al dituzte emakumeentzat barruko arropak? Bai. Batez ere San Balentin Egunean eta Gabonetan. Pijama ala kamisoia? - Pijama.
- Barruko arropa gorria, beltza ala urdina?
- Urdina nahiago dut.
- Enkajeak gustuko al dituzu? - Bai gustatzen zaizkit.
- Nori jantziko zenizkioke zetazko gantzontziloak? Leequiori.
- Zer estaliko zenuke tela ilun batekin?
- Eskaparate itsusi bat.
- Ihauterietarako mozorro bat?
- Indio disfrazaz iruditzen zait politena.
- Zerk eskandalizatzen zaitu? - Ez naiz erraz eskandalizatzen, baina batzuetan zurrumurruek noraino iritsi daitezken pentsatzeak eskandalizatzen nau.
- Noren mozorroa josiko zenuke gustura?
- Nire lagunena batena.
- Gizonak slipekin ala gantiontzilo luzeekin?
- Boxerrekin daude ondoen.
- Zer ikusi nahi zenuke gasazko tela baten beste aldetik? Korseteriako konjuntok polit bat.
- Gizarteko zein alorrek dauka petatxuen beharra? Sektore guztiek dute konpontzeko beharra, beraz, alor guztietan jarriko nituzke.
- Seduzitu ala seduzitua izan?
- Besteek ni seduzitzea nahiago dut.
- Zein oihalekin egingo zenuke jantzi bat?
- Zilar koloreko oihalen batekin.
- Praka beltzetan ari zuria ikusiz gero... Jostun baten alaba naizenez horrelako detaile txikiei asko begiratzen diet eta oso itsusia da tela ilun batean ari txuria ikustea.
- Nori jarriko zenioke kremailera ahoan? - Herriko jende askori, zurrumurruekin jende asko mintzen baitute.
- Dendari onak zer behar du? - Irribarrea.




## ESKERTZA

*2000ko otsailaren 10ean, 81 urte zituela hil zen FELISA ARRIOLA ZUBIALIRREren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## ESKERTZA

*2000ko otsailaren 9an, 76 urte zituela hil zen NICOLAS ANTXLIS'TEGI ARRIZABALAGAre sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Urruzunoko lurretan kutsadura '9iskua oso baxua dela frogatu dute analisiek

Lindanea, lur azpian 10 metrora eta sakabanatuta dago

**D**ebabarreneko Mankomunitateak ikerketa bat egin du Urruzunoko lurrak zein egoeratan dauden jakiteko. Otsailaren 2an ikerketaren emaitzak eman ziren jakitera eta onak izan dira. Azterketek kutsadura arriskua baxua dela erakutsi dute.

Arlo ezberdinei buruzko analisiak egin dira eta baikorrak izan dira guztiak. Esate baterako, ura, (bai kanpoan eta baita hodi barnekoa ere) edo atmosferara egindako isurkinak aztertu dira eta horietan, kutsadura mailak ez dira iristen igartzeko moduko mailara. Uraren kasuan, adibidez, arriskutsua izateko 50eko kopurura iritsi behar da eta Urruzunokoak eskala horretan 2,7ko maila dauka. Lindanea

Bestalde, lindanea egon badago, baina 10 metro lur azpian eta saka-



*TEAM Ingurugiro Infinerutza enpresak egindako ikerketak ura eta atmosfera aztertu ditu besteak beste.*

banatuta. Beraz, zaila ikusten da subs tan tzia horrek kaltea sortzea.

Udalak poztasunez hartu ditu emaitzak, horri esker paraje horretan lasai ibil gaitzkeelako giza osasunarengan ez baitu inolako

eraginik izango.

Hala ere, zabortegeko drenaje sistemak modu egokian zaindu eta garbitu behar dira gainpresiorik gerta ez dadin.

Iaz bertan, Euskal Herritarrok alderdiak Urruzunoko zabortegean Trapagarandik ekarritako lindanez kutsatutako lurrak zeudela salatu zuen. Udan, ordea, analisiak egin ziren eta analisisien emaitzek lindane maila kaltegarria izatetik oso urruti zego-

la frogatu zuten. Hala ere, Mankomunitateak ikerketa bat enkargatu zuen nolako arriskua zegoen jakiteko. Orain, lur horietan kutsadura arriskua eskasa dela gelditu da agerian.

## Edarien prezioek gora egin dute Elgolbarko tabernetan

Txikitoaren eta ardo bereziaren salneurriak izan dira mantendu diren bakarrak

**E**goibarko tabernetan zerbait hartzera sartzen direnek edarien eta kafearen prezioak igo egin dituzte. La igarriko zuten jadanik. Errioxako ardoaren salneurri altuak eragin du prezioen igoera, 150 pezeta garestitu baita botila ardo bakoitza. Beraz, prezioen igoera ardoetan igarriko da batez ere. Dena den, txikiteorako ateratzen den ardo normalak ez du gorabeherarik izango. Ardozale-



*Edariak ezezik kafea ere garastia goa izango da hemendik aurrera.*

ek ezezik, besteek ere nabaritu dute gorakada. Zuritza eskatu eta hogeiturokoak mostradorean utzita alde egiten zute-

nek, hemendik aurrera bi duro gehiago laga beharko dituzte. Kainak, freskaganiak eta kalimotxoak ere garestitu egin dira eta orain 225 pta. balio dute. Kafea hartu ondoren ere diru gehiago eman beharko diogu tabernariari. Beraz, tabernara zoztenez, jakinaren gainean zaudete, kontua egitean ez dela tabernaria konfunditu, prezioek gora egin dutela baizik. Kantitateak

jaitsi beharrean prezioak igotzea izan da tabernariak salneurrien igoerari aurre egiteko erabili duten irtenbidea.

EDARIA	LEHEN	ORAIN
Txikitoa	50	50
Berezia	100	100
Kriantza	175	200
Zuritza	100	110
Katia,	200	225
Freskagarriak	200	225
Kalimotxoak	200	225
Konbinatuak	450	475
Kafe hutsa	130	140
Kafe ebakia	130	140
Kafesnea	140	150
Infusioak	140	150





## Lan Istripuen aurkako eskualdeko kontzentrazioa egin zen Elgoibarko plazan

Joan den ostegunean, hilaren I Oean, lan istripuen aurka protestatzeko kontzentrazioa izan zen Plaza Handian. ELA, LAB eta ESK sindikatuek deituta, eskualdeko hainbat ordezkari elkartu ziren "Lan Istripu gehiagorik ez!" lemapean. Kontzentrazio honekin, San Pedro bailaran zuhaitzak mozten hari zela bizia galdu zuen Domingo Garateren heriotza salatu zuten. Baita langileentzat segurtasun neun'i handiagoak eta lan baldintza hobek eskatu ere.

## Cascanueces lokalean egindako eskulanak hilaren 27ra arte izango dira ikusgai

Joan den astelehenean, hilaren 14an, ireki zuten Cascanueces lokalean egindako eskulanen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan ikusgai daude beraz, margoz, zurez, beiraz, marmolez, estainuz... egindako lanak. Zaharberitutako altzariak ere ikus daitezke bertan. Guztira 110 lan daude eta denak Rosa eta Mari Carmen Iglesiasen begiradapean eginak dira. Erakusketa, astegunetan arratsalde zabalik izango da 19:00etatik 21:00etara, jaiegunetan, berriz, goizez, 12:00etatik 14:00etara. Irakasleak azaldu digunez, erakusketan mota askotako lanak daude eta herritar guztiei bertatik pasatzeko gonbitea luzatu nahi die.



## Gutun sozialaren aldeko kontzentrazioan oso jende gutxi izan zen



10 lagun inguru baino ez ziren elkartu astelehenean, hilak 14, Plaza Handian Gutun sozialaren alde egin zen kontzentrazioan. Arratsaldeko 20.00etara egin zuten deia eta pankartaren

atzean bildutakoek, lanik ez dutenentzat oinarrizko soldata bat eskatu zuten. Azaroan ere, ekimen berarekin bat eginez, Euskal Herria zeharkatu zuen ibialdi bat egin zen eta Elgoibarren geldialditxo egin zuten gutun sozialaren alde.

## • Haur saharaiak familietan hartzeko kanpaina martxan da

Udalak, Euskadiko Frente Polisarioak udan saharar herriko haurrak familietan hartzeko kanpaina bultzatu nahi du Elgoibarren. Programa honetan parte hartu nahi dutenak, Elgoibarko Udaletxeko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri behar dira eta bertan jaso ahal izango dute kanpainaren inguruko informazio gehiago.

- Kontabilitate  
- Lan  
- Fiskal  
**ITT ERCOS ASEGURAOAK**



**URK1D1**

**AHOLKULARITZA**

Kalamua, 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
943 74 18 91



**INTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

## Udalak plangintza berezia prestatu du Udaltzaingoarentzat

Udaltzain bakoitzaren zereginak eta ordutegia zehaztu dira

### • Udalak Foru Aldundiari aurreratutako dirua itzultzeko eskatu dio

Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiari aurreratu zion dirua itzultzeko eskatu dio. Diru hori Sallobenteko errekan uholdeen aurkako obrak egiteko aurreratu zion Udalak Foru Aldundiari, Gipuzkoako erakundeak obra horien %25a ordaindu beharra zeukalako. Obrak atzeratzeko arriskua zegoen, une hartan Aldundiak diru arazoak zeukalako eta gutxi gorabehera 15 milioi pezeta jarri zituen Udalak. Orain, Foru erakundeak aurrekontuak onartu ditu eta ondorioz, Udalarari bidezkoa iruditu zaio dirua itzultzeko eskaria egitea. Izan ere, Udalak dirua behar du prestatuta dituen egitasmoak martxan janzeko, dirurik gabe ezin baita proiekturik gauzatu.

Halaber, Mikel Zaballari, Aldundiko Ur Lanen zuzendariari, Elgoibarren, San Pedro auzoan uholde arriskua ebitatzeko egin behar diren lanak zirela-eta egon zenean, zera eskatu zioten: Aldundiak obren %25a ordaintzea. Negoziazioak Eusko Jaurlaritzarekin oso aurreratuta daude eta Gilermo Garate alkateak adierazi zuenez, Alvaro Amann sailburuarekin akordioa sinatzea besterik ez da falta.

Udalak Udaltzaingoarentzat plangintza berezia prestatu du. Plangintza honek udaltzain bakoitza hartzen du kontutan eta horrela, bakoitzaren zereginak eta ordutegia zehatz-mehatz finkatu dira. Txanda ezberdinak daude eta horren arabera lan ezberdinak dituzte udaltzainek. Hiru txanda daude: Lehenengoa, goizeko 6:00etatik eguerdiko 13:45ak artekoa da. Arratsaldekoa, 14:00etatik 21:45erakoa da, eta gauekoa, beniz, 22:00etan hasi

eta 05:45ean amaitzen da. Horretaz gain, larunbat arruntak, feria eguneko larunbatak eta igandeak eta jai egunak daude.

Udaltzaingoaren aldeko apustua

Udalak betidanik eduki du Udaltzaingoaren aldeko jarrera. 1995ean alkatetzara heldu zenean, Gilermo Garatek herriko zereginetarako, ertzainak baino udaltzainak egotea nahiago izan zuen. Horretaz aparte, herrian dauclen udaltzainen kopurua mantentzearen



Plan itra honak  
batzuek udaltzainak buruz dute trudi  
rra ezabatu nahi da.

alde egin du beti, horrela, bi baja izan zirenean beste bi udaltzain berriekin ordezkatu ziren. Egun ere, udaltzainen aldeko apustua egiten da, herritarrengandik gertu daudelako eta berriekin dituzten arazo ezberdinak konpontzen dituztelako. Bide batez, plangintza honek elgoibartar batzuek udaltzainei buruz duten irudi txarra ezabatu nahi du. Ezer egiten ez dutela diotenak oker daudela fmgatu nahi du, bakoitzaren lana eta ordutegia argi zehaztuz.

Gaueko txanda

Gillermo Garateren legegintzaldian gaueko txanda indartu egin da; lehen, udaltzain bakarra egoten zen gauez eta orain hiru egoten dira, herritarren edozein eskariri erantzuteko. Izan ere, ezberdinak dira udaltzainek betetzen dituzten lanak: kaleak itxi eta ireki, azoka, komunak etab. zabaldu, semaforoak martxan jarri, trafikoa zuzendu... Azken finean, herritarren zerbitzurako langileak dira, funtzio ezberdinak betetzen dituztenak.

## Alde Zaharra "Errehabilitazio eremua" izendatu du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailak Elgoibarko Alde Zaharra (Plaza Handitik hasi eta Madalaraino) "Errehabilitazio Eremua" izendatu du. Udalak aurrez eskatera luzatu zuen eta pasa den otsailaren 3an, aipatutako sailak onartu egin zuen. Herriko toki horrek hirigintza aldetik baldintzak betetzen dituelako gertatu da hau.

Alde Zaharrak jaso duen izendapen hau, aurrez Altolako eta Sigmako auzoek ere jaso zuten. Horrela, hiru toki horiek "Errehabilitazio eremu" izendatu dituzte. Beraz, etorkizunean Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak eman behar baditu, Elgoibarrek aukera asko izango lituzke dirua jasotzeko. Hona-koa, beraz, ondoren dirua jasotzeko lehenen-

go urratsa da. Udaleko ordezkariak pozik hartu dute izendapena. Beraien iritziz, izendapen hau, "bidaia egin ahal izateko pasaporteak edukitzea bezalakoa da. Izan ere, pasaportetik gabe ez dago bidaiarik egiterik" aipatu zuten Udaleko ordezkariak.

Udalak lehenetsunaren artean dauka hirigune zaharra berritzeko eta txukuntzeko asmoa. Baina, horretarako, aurretik plan bat eduki behar da, eta, horrez gain, noski, dirua jaso behar da. Udalak plana eginda dauka, gero, dirua iristen den ala ez ikusi beharko da. Udalaren hurrengo asmoa, San Pedro auzoa ere Karkizano aldeko etxebizitzak) plan honetan sartzea da. Beraz, auzo horri buruzko ikerketa lan bat egiteko dirua helduko ote den zai daude.





## Agustin San Martin

**Agustin San Martin eta Patricia Trojaola jubilatuta daude eta bidaiatzea asko gustatzen zaie. Espainiako txoko ugari bisitatu dituzte jadanik, baina badira oraindik ezagutzen ez dituzten leku asko ere. Hotelean, apartamentuetan zein kanpinuean ibili dira eta beraien ibilerak kontatzeko gure artera ekarri dugu Agustin. Hona hemen esan dizkigutenak.**



*Agustinek bere emazte Patriciarekin batera hainbat txoko ezagutu ditu.*

### - Noiz hasi zineten bidaiak egiten?

- Lan eitxen gendunian udako oporretan 15 egunerako urtero juten ginan kanpora. Hondartzetan ibili gera Mediterraneo aldiari, baina gehixao mendiko irteerak ein ditzugu. Urbanen, Pirineuetan, Picos de European eta Andorran ere bastantetan izan gera. Mendixak ikusi eta hango bizimodua ezautuaz ibili gera.

### - aialatu ostean bidaiatzeko ienbora gehiago izaten da, erta?

- Jubilau ezkeron biaje luze bakarra in dou, Benidormera juteko aprobetxau genduan. Andrian ahiztiakin eta koñatuakin laurok batera jun ginan. Jubilauetatik ere ein ditzugu biaje mordua, kanpua ikusiaz eta bertako jendia ezautuaz.

### - Zein atatu zaizue gehien?

Leku asko daude politxak eta kuriosuak, bai hondartzetan eta bai mendixan. Hondartzetan bat hartzekotan Benidorm aukeratu nuke. Herrixa bakarrik ez, inguruak ere politxak ditzu eta bertan ambiente ona eoten da gainera.

### - izan utien

- Urrutien Portugalen izan ginan bi biaje in genitxuan bertara, baina Espainian gehixao ibili gera,

Mediterraneoko kostan. Hemen bertan ere badao zer ikusixa asko.

### - msersoak antolatL.,ako daietara joan al zarete inoiz?

- Imsersoko biajiak onak dila esaten dabe, baina gu ez gera sekula jun. Normalian autobusian edo geure kotxiakin partikular jun gera, batez ere udako biajietan.

### - Kanpinuean ere ibiita zaudete.

- Jubilau ginanetik hotelian ibiltzen gera. Baina aurretik gure kontura jun ginanian, apartamentuetan eta hoteletan, eta lehenengo urtietan kanpinian ere ibili ginan. Kanpina montatzen jakinez gero, lasai ibili leike. Lo eitxeko lekua topauta ez dao problemarik. Kanpinera edo apartamentura jun ezkeron libertade gehixao eukitzen dou eta kanpua lasai ikusten jun leike. Baina hotela hartzen bada, jateko ordua ipintzen dabe.

### - Zeren joaten zarete itanpor7:7

- Lekuak ezautzia eta bertan bizi dianen bizimoduari buruzko gauzak jakitzia gustatzen jaku. lazko udaberrian, esaterako, Urbanako

artzaiekin euren txaboletan egon ginan. Gabian, berriz, bixamonian prisarik ez danoz juten geran lekuo ambientea ikusten dou. Benidormen adibidez, sala mordua daude eta baitxa abenidan bertan festibalak ere. Udan gabero urtetzen gera kafia hartzera eta dauan girua ikustera.

### - Lagun asko egingo ezn-7

- Hemendik kanpora bakarrik jun arren, ezagunak bilau gabe

inundik ez gera etorri. Urte batian Cadizera jun ginan eta bertan elgoibartarrekin juntau. Leku guztietara lehenengo urtian ezezagun moduan jun gera, baina hurrengo urterako danak ginan ezagun eta baitxa lagun ere.

### - Jubilatu etxeak antolatutako irteeretara ere joaten zarete.

- Bai, askotan jun izan gera herri diferentietara. Bertako jokaerak eta jendia ikusi eta baztarrak ezautu ditzugu. laz Santanderren, Biarritzen, Nafarruan eta Logroñon izan ginan. Kanpua ezautzia gustatzen jakonantzat, biajiak dia modurik onena.

### - Gauza bitxiren bat gertatuko zitzaizuen noizbait.

- Behin kanpinera gabian berandu heldu ginan, tiendia montau eta kumunera noiala atzetik argi batekin alto eman zien. Kanpineko guardia zan, atzetik tiendaraino etorri jatan eta orduantxe ailegau ginala esplikau bihar izannion, ez omen zan nere ibilerekin fixau, baina bere lana haura zan eta kumpulidu in bihar zaban.

## *Maria Mortatena:*

**ddib urtereion einan L**

**78 urteak dituen Maria Mortatena, Nafarroako Baztangoa, baina gaur egun Altzolan bizi da bere semeetarikoa batelcin. Bertan 12 urtez telefonista lanetan aritu ostean, orain lasai antzean igarotzen ditu egunak. Goizean gimnasia egiten du eta arratsaldean lagunekin karta jokoa aritzen da. 10 seme-alabaren ama da eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak diploma bat eman berri dio 20 aldiz odola ematera joan den emakurte honi. Berarelcin hizketan jardun gara, horren ongi nola mantentzen den jakiteko. Baina Mariak sekretua isilean gorde nahi du, guri behintzat ez digu formula magikoa argitu.**

### **- Noiz etorri zinen Altzolara?**

- Lekarozen sortu nintzen eta bi urte nituelarik Arraiotzera joan ginen bizi izatera. Ordu hartan ez zegoen lanik eta denok kanpora joan beharra izan genuen. Ni Elgoibarrera etorri nintzen lehen-dabizi, hemen lana eta ikasteko aukera ere han baino gehiago zegoen, Bi urtez hemen bizi eta gero, Altzolan etxea erosi eta bertara joan nintzen orain dela 40 urte inguru.

### **- Nola gogoratzen dituzu zure jaiolekuan bizitako garaiak?**

- Ongi bizi nintzen ama, aita, aita-txi eta amatxirekin. Sei anai-arreben artean neska bakarra nintzen. Ez genuen ezer falta, bagenituen behiak, esnea... jateko denetarik genuen. Gero gerra etorri zen eta gauzak aldatu ziren, baina orohar pozik bizi ginen Nafarroako txoko hartan.



### **- Hamar seme-alabaren ama zara, ezta?**

- Senarra hil zelarik hasieran oso gaizki egon nintzen. Zaharrenak 16 urte zituen, gazteenak, berriz, 9 hilabete. Baina denak zintzoak atera zaizkit, oso studiosoak eta orain guztiak lanean ari dira. Aitarik gabe gelditu zirenez, beharrak eraginda, aurrera atera dira guztiak.

### **- Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak diploma bat eman dizu 20 aldiz odola emateagatik.**

- Tentsioa beti nahiko goitik izan dut. Hemen odola ematen hasi nintzen eta 20 aldiz-edo joan nintzen. Baina 75 urte bete nituelarik gehiago ezin nuela eman esan zidaten. Nik jarraituko nukeen eta ederki gainera, baina ezezkoa eman zidaten eta ezin segi. Odola eman eta oso ongi gelditzen nintzen, orain berriz beti zaintzen ibili behar. Orain diploma jaso dut eta oso pozik nago. Odola ematen nuen pentsatuz agian, gero nik ere noizbait beharko dudala. Nire seme-alabek ere uste dut guztiak eman dutela odola inoiz.

### **- Altzolako jubilatuen ardurduna ere ba omen zara.**

- Bi astean behin beste lagun batekin jubilatuen lokala garbitzen dut eta baita zaindu ere. Elgoibarko Jubilatuen Etxea arbola da eta gu adar bat besterik ez gara. Hori dela-eta eskurtsio-etarako izenak hartzen, kuotak kobratzen... aritzen naiz. Lehen lan asko egindakoa naiz, baina orain hau entretenimentu bat da niretzat.

### **- Orain bizimodu lasaia egiten duzu beraz.**

- Goizean, 9:30ean 6 lagun gimnasia egitera joaten gara jubilatuetara eta ondoren txarla piska bat egiten dugu. Arratsaldean kartetan aritzen gara eta ilunabarrean elizara joaten naiz meza aditzera eta laguntzera. Ez daukat lehen bezalaxe lan egiteko afana, orain mantsoxeago eta trankilago bizi naiz.

### **- Zer egin duzu hainbeste urtean osasuntsu bizi izateko?**

- Beti izaten dut zerbait. Eskuan artritisa edo artrosia dela, hango mina dela... Baina zuzen ibiltzeko bideak dauden artean pozik.



## Zertan ematen duzu denbora librea?


Jubilatuen biltokiak otsailerako bi ikastaro antolatu ditu. Batean herriko hedadetuek eskulanak egiten ikasi dute, bestean, berriz, oroimenaren hobekuntza landu dute. Herriko jubilatuek denbora librea modu egokian aprobetxatzeko aukera izan dute. Bide batez, guk ere galdera hau luzatu nahi izan diegu herriko nagusienel, denbora librean zer egiten duten, hain zuzen ere. Aisialdiarako munduko asti guztia izaten dute bizitzako garai honetan eta egiten dutena azaldu digute.



### Maria Esther Arrizabalaga

68 urte


Oso ondo entretenitzen naiz bilobekin eta pasiaran. Lehenao, inoiz, memoria ejerzizivak eta eitxen ibili izan nintzan Jubilauetan, baina aurten ez naiz jun. Ondo ikusten dot holako gauzak antolatzia astixa dakana juteko. Ni neu ez naiz asperzen.



### Maria Larrea

83 urte


Nahikua lan inda nao eta oin telebisio piska bat ikusi, zeozer irakurri eta holaxe pasatzen dot denbora. Jubilauetako kursilluetara ez naiz juten, gainera aspaldixan mina hartuta nao, baina etxian nere gauzeekin moldatzen naiz eta ondo bizi naiz holaxe. Pensiva piskat igoko balebe hobeto.



### Felix Agirrebeña

71 urte

Mendira edo kalia pasia urtetzen dot. Piska bat irakurri eta telebista ere ikusten dot denbora pasatzeko. Betiko ohiturak hartuta dakaraz eta Jubilauetara ez naiz juaten. Kanpuan, aire librian, hobeto moldatzen naiz, haizia hartzia beti ere onerako izaten da-eta.



### Antonino Garcia

68 urte

Lagunekin paseatzera joaten naiz 'Danobat' aldera goizetan. Arratsaldetan, noizean behin, eskulanak egiten ditut. Aurten gutxitan aritu naiz, baina iaz egurrarekin, eskuz, bi karrotxo egin nituen. Horrela entretenitzen naiz eta ongi pasatzen dut gainera, ez aspertzeko modu egokia da.



### Virginia Bollain

76 urte

Gauza asko egiten ditut. Lehenengo etxean laguntzen dut eta gero irakurri eta baita tzi ere. Nire alabari ere laguntzen diot. Egunean ez zait denborarik sobratzen. Gaztetan pentsatzen nuen ingelesa eta frantsesa piskat gehiago ikasteko denbora izango nuela gero, baina orain ez daukat astirik. Hala ere egiten dudanarekin pozik bizi naiz.



Bar

**E**spainiako pertsona helduen %40a1c dauka zainetako gaixotasunen bat eta horietatik 3.000.000 dira barizeak dauzkatenak.

Emakumeengan gizonetan baino eragin handiagoa dauka gaitz honek. Gainera, joera hori norberak jarraitzen duen bizimoduari erabat lotuta dago. Pertsona lodiek, sedentarioek eta zutik zein eserita denbora askoan lan egiten dutenek errazago izan ohi dituzte barizeak.

Sintomarik ohizkoenak hanketako mina eta oinak zein orkatilak handitzea, hankak txindurritzea eta gauetako kalanbreak eta ziztadak dira. Tentsio honi aurre egiteko ariketa fisikoa egitea gomendatzen dute medikuek. Honetaz gain beste hainbat aholku ere ematen dituzte adituek, gaitza saihesteko edo gaixotuz gero eramangarriago gertatzeko:

Gerritik behera arropa oso esturik ez erabili, ezta takoi altudun zapatarik ere.

Norberari dagokion pisu egokian mantentzen saiatu. Alkoholik ez edan eta tabakorik ez erre.

Denbora askoan eguzkitan egotea eta bainu beroak hartzea ez da gomendagarria.

Galtzerdi elastikoak erabiltzea ona den ala ez adituei galdetu behar zaie. Gomendagarria da 140 Den. lodieradunak jaztea.

Etxean ariketak egin. Amaitzean eskuekin masajetxo bat eman oinetatik izterretara, odolaren zirkulazioaren alderantzizko norabidea jarraituz, alegia. Nahi izanez gero igurtziak ere egin daitezke.


Aukera izanez gero, igeriketa eta bizikletan ibiltzea kirol gomendagarriak dira. Ahalik eta gehienetan praktikatzuz gero hobe.

Oinez ibili. Egunean ordu erdi batez gutxienez.

Denbora luzez zutik egotea ez da ona. Ordu bete bakoitzeko 20 minutuko atsedenaldira egitea komeni da. Tarte horretan hankak jasota izan eta masajetxo bat eman.

Ordubete baino gehiago eserita egotea ere ez da komeni (bidaietan, lanean...). Kasu honetan ere jaiki eta minutu batzuetan oinez ibiltzea ona da. Jarrita gaudenean hankak altuan, taburete txiki batean, izatea komeni da. Ohean etzanda gaudenean berdin. Lotarako 10 edo 20 zentimetro igo behar dira hankak.

EZETIA · ERREZETIA



Jose Zabala

## Zapoa amerikar erara (6 pertsonarentzat)

**OSAGAIAK:** zapoa(1'5 kilo); 12 koilarakada olio; 2 kopa kofiak; baso bat ardo zuri; irina; kilo erdi tomate naturala; Porru bat; kipula bat; 8 azenario; 4 berakatz atal; pipermina goilarakada bat eta piper hautsa.

### PRESTAKETA

Zapoari azala eta erdiko hezurra kendu ostean, pusketak egin eta gorde, bai hezurak eta baita zapoa bera xerratan moztuta. Barazki guztiak xehe-tu, lapiko batean 6 goilarakada olio jarri eta barazkiak bertan poliki poliki egin. Irin goilarakada bat, pimentoia eta zapoaren hezurak eta azala gehitu eta bueltak eman. Bi kopa kofiak bota eta su eman ondoren, itzali arte utzi. Tomatea, ardo zuria eta piperra gehitu eta 20 minutuz sutan eduki. 'Txino`an pasatu eta saltsa gorde. Zapoaren xerrak hartu, irinetan pasatu eta minutu batez oliotan frijitu, buelta eman eta beste horrenbeste egin. Ontzi batean jarri eta saltsa bota. Gero labea 150 gradutan ipini eta kazuela sartu. 10 minutu labean izan ostean mahaira atera eta jateko prest izango da plater goxo hau.



*Musti Hadi Ceutan jaio zen duela 39 urte. Gaur egun, ordea, Elgoibarren bizi da enzaztearekin eta bi alabarekin, duela 13 urte gure herrira etorri ondoren. Azken bi asteotan albiste izan dira El Ejidon eta Espainiako beste herri batzuetan etorkin magrebierrekin izan diren istiluak. Mustiren egoerak ez dauka batere zerikusirik horrekin, espainiar nazionalitatekoa delako eta ez delako etorkina. Baina jatorri arabiarrekoa denez (bere gurasoak arabiarrek dira), gertaera horiek komentatzeko berarekin berbetan egon gara. Arrazakeria toki guztietan dagoela aipatu digu.*

## "Arrazakeria gizakiak barnean daukan deabruixoa bezalakoa da"

**Zer iritzi duzu E1 Ejidoko gertaerez?**

- Larregikoa izan da. Sekulako gehiegikeria egin dute. Nik hango egoera ez dut asko ezagutzen, baina EEBBetan inexistente etorkinekin gertatu zena gertatu dela uste dut. Duela 30 urte E1 Ejido ez zen ezer ere eta etorkinek altxatu dute. Espainiaz hitz egiten ari gara, gainera, eta Espainia Europako lehenengo herrialde etorkina izan da. Lehen, duela 40 urte, ia herri gehienak joaten ziren Europara edo Amerikara. Orain ari dira etorkinak agertzen Espainian; lehen denak beste herrialde batera pasoa zihoazenak ziren. Azken 10 edo 15 urtetan bertan gelditzen ari dira. Espainian etorkinen %2 edo bakarrik dago, Italian, esaterako, %7 eta Frantzia gehiago. Gainera, etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanak egi-

ten dituzte.

**—Zure egoerak ordea, ez dauka horrekin batere zerikusirik.**

Nik ez daukat arazo hori, espainiar nazionalitatea daukadalako eta soldaduska han egin nuelako. Espainiera hitz egiten nuen Ceutan eta ez nuen inolako papeleorik egin beharrik izan etortzeko. Kanariar bat edo kataluniar bat bezala heldu nintzen hona.

**- Noiz etorri zinen Egoibarrera?**

Orain nire koinata dena Ceutan ezagutu nuen soldaduzka egiten ari nintzenez. Arreba hara joan zen bisitan uda batean eta hura ezagutu nuen. Orduan ezagutu nuen nire emaztea dena. Hona jaietara etorri nintzen, aste-betez egon eta bueltatu egin nintzen. Ondoren, Gabonetan, urte bukaeran ni ikustera joan zen eta ni harrez geroztik hemen nago, duela 13 urtetik. Eta ez naiz kexatzen, ongi nago.

**—Aldaketa nabaritu al ze-Mien hemen?**

- Aldaketa nabaritu nuen, Ceuta hiri txiki bat bezalakoa delako, bertan 70.000 biztanle bizi dira. Hemen, ostera, zazpi aldiz gutxiago daude. Beraz, pisika bat txokantea izan zen, hau Ceutako auzo bat bezalakoa da. Hemen jendea, klima... ezberdina zen, hau beste mundu bat bezalakoa da.

**—Hemengo bizimodura ohitzea zaila egin al zitzaizun?**

Ez zitzaidan batere kostatu. Hau txikiagoa dela da kontua, baina besterik ez. Ez neukan ez hizkuntza, ezta bestelako arazorik ere, beraz, hona heldu eta berehala lanean hasi nintzen. Zortea eduki nuen, heldu eta berehala lana aurkitu nuelako. Gainera, nire andrearen, Agurtzaneren koadrilakoak oso jatorrak dira eta oso ongi hartu ninduten.

**—Sentitu al duzu inoiz arrazakeria zure azalean?**

- Kasuren bat edo beste gertatu zait inoiz; batzuek arraro begiratzen nautela nabaritzen dut. Oraindik horrelako jendea badago. Arrazakeria toki guztietan dago. Nik, esaterako, bi neba-arreba daukat Danimarkan eta han ere badaude jarrerak arrazistak. Arrazakeria beti egon da. Aldi edo garai batzuetan indarra hartzen du, baina Hitler baino lehenagotik dago. Arrazakeria gizakiak barnean daraman deabrutxo bezalakoa da. Batzuek buruan daukate, beste batzuek, aldiz, bihotzean. Batzuek arrazistak dira kultura mailan eta ez dute onartzen besteek beste izen bat edo beste erlijio bat edukitzea. Ezezaguna denari beldurra diote.

MUSTI HAD

### gESTEER ESANA

"Etiozein fabore eitxeko prest dauan lagun atsegina da" ROBERTO AZPILLAGA, laguna.





**K**ristina Txaniz, 42 urteko elgoibartarra, Ginebran (Suitza) bizi da. 1983. urtean heldu zen Suitzara. "Erizantzak ikasketak Donostian bukatu nituenean

Kvqsfinci  
etxaniz

Ian gutxi zegoenez, beste nonbaiteira joan beharra izan genuen enizantza ikasle askok. Erizantza eskolan bertan aukera desberdinak eskaini zizkiguten eta beste ikaskide batzuekin batera Ginebra aukeratu nuen. Europaren erdian kokatuta egotea eta frantsesez hitz egiten nekiela izan ziren Suitza aukeratzearen arrazoi nagusiak". Kristinak azaldu digunez hango bizimodu eta hemengo nahiko antzerakoak dira, "Euskal Herriak ez dauka Suitzarent inbidian izan beharrik". Noizbait bueltatzeko asmoa duela aipatu digu, baina ez daki noiz. Bitartean, urtean 3 bat aldiz etortzen da Euskal Herrira. "Ginebra oso hiri 'kosmopolita' da, Ieku askotatik etorritako jendea bizi da, arraza guztietakoak. Erabat integratutik ez badaude ere, beste hiri handietan baino alaiago bizi direla iruditzen zait. Hiri lasaia eta mugimendu kultural handikoa da". Suitzan bizitzeak inguruko hernaldeak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen duela azaldu digu, "Europaren bihotzean dago eta herrialde askorekin ditu mugak. Suitzan hiru hizkuntza hitz egiten dira; italiarra, alemanera eta frantsesa. Bidaia-tzea gustoko dut eta inguruko herrialde guztietan izan naiz". Bestalde, Ginebran laku bat izan arren itsasoaren falta nabaritzen duela esan digu.

AdIN

VIAJES OIDAIAK  
**BILBRO EXPZESS**

**bidai agentziak  
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3  
Tel: 943 74 39 12

## Esteban Zublaurps Garitagels

(1904-1994)



- 1904ko abuztuaren 2an jaio zen Elgoibarko Usetxe baserrian, gaur Usetxe kalea dagoen lekuan. 7 anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Gaztetako ikasketak Marianisten eskolan egin zituen, egun Pilar ikastetxea dagoen tokian.
- Gazte sasoiaren etxe aurreko ibai aberatsean, txanelarekin arrantzan, igerian eta Madalako koadrilarekin jolasen pasatu zuen.
- Usetxe sagardotegi ospetsua zen eta kanpoko makina bat jende egoten zen bertan, batez ere Lerungo zelai zaharrea futbolari ikusi eta bueltan. Arraina, sagardo ederra... janaz eta edanaz. Eibartarrak asko joaten ziren bertara.
- Baratz ederra ere eduki zuten eta kaleko salmentarako genero ona ekartzen zuten. Esteban arduratzen zen gai honetaz.
- 13 urterekin eskopetero ofizioa ikasten hasi zen Manuel Etxeberria 'Parapan'eldn. 3 urte geroago Eibarko Ormaetveanean hasi zen eskopetero lanean.
- 18 urterekin Ordiziako Santa Ana txirindulari frogara irabazi zuen Rikardo Monteroren aurretik. Deban Rikardo Monterok egin zuen lehenengo eta Esatebanek bigarren. Beste hainbat karreratan ere hartu zuen parte.
- Soldaduzka Gasteizen egin zuen eta erromerietan ere ibili zen. 1936ko gerratean Derion "Esperanza"neko tailerrean lan egin zuen militarizatuta eta Markinara itzulita, lantegi honetan jarraitu zuen jubilatuta arte.
- 1945ean Markinan, bertako Jemein baserriko Maria Mandidarekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten, Iñaki. Bere erraina, Mertxe Ros da.
- Izaera patxarosoia eta irribarre argia zituen gizon hau segituan alargundu zen. Semea Elgoibarren jaso zuen arreba Pilarrek eta Esteban astero etortzen zen bisitan.
- Gizon legezkoa, jatorra, sinesmenekoa, herrikoia, estimatua eta lagun artekoa zen. Esteban itxura onekoa, galaia, alaia, ospetsua ere bazen eta askotan abesten zuen koadrilarekin. Gogokoak zituen txirindularitza, euskal kantak, irakurtzea eta paseatzea.
- 1994ko azaroaren 22an hil zen 90 urterekin.

Juanito Gorostiza

**Lanbroa**

Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOLBAR

**KAROBI  
TABERNA**

ELGOIBAR





**A**

ste honetako erretratu zaharra altzolatari batek laga digu. Argazkia 1934. urtean ateratakoa da, Altzolako lekuan ikurriña jarri zuten eguneko, hain zuzen. Altzolako zubi-ertzean atera zuten argazkia, eta bertan agertzen diren guztien izenak batzea ezinezkoa izan bada ere, honako hauek dira ezagutzea lortu ditugunak:


Ikurrhia dararnana **Alberto Landa** da, madrina, berriz, **Mari Paz Irusta** eta txistularia **Patxiko Etxeberria**. Identifikatzea lortu ditugun gainontzekoen izen abizenak hauek dira. Tartean badira argazki honetan gaur egun bizi ez direnak ere. **Jose Mari Arozena, Jose Mari Ciaran, Jesus Oteiza, Ignacio Irusta, Andres Egaña, Carmen Elorza, Prudencio Arrizabalaga, Remigio Bernedo, Patxi Iriondo, Vicente Lariz, Victoriano Ciaran, Jose Gabilondo, Felisa Maiztegi, Mari Tere Landa eta Eduarda Iriondo**

**r**eliky



**VII URTEURRENA**

*1992ko otsailaren 17an, 47 urte zituela hil zen  
JUANJO SAN MARTIN OTEGIren oroimenez  
VII URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian  
larunbatean, hilak 19, arratsaldeko 19:00etan.  
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.*





## "Outtra 128 gol sartu ditugu eta bakarrik sartu Miguten



### Marta Diez

• Adina: 21 urte

ffi **Postua:**

Eszerreko lateralean jokatzen dut

ffi **Athletic ala Real?**

Athletic

ffi **Jokalari bat:**

Roberto Carlos

ffi **Zein da taldeko goleatzaile nagusia?**

Mireia Huidrobo

- **Ligako lehen fasea lehen postuan amaitu duzue, ezta?** - Bai, lehen itzuli bikaina burutu dugu. 17 partidutatik bakarra galdu eta gainontzekoak irabazi egin ditugu. Mutrikuko taldeari, hau da, bigarren sailkatuari 5 puntuko aldea atera diogu.

**Orain, igoera fasea ari zarete jokatzen.** - Bai, lehen fasean talde guztiak 3 multzotan banatuta geunden. Multzo bakoitzetik lehen 4 taldeak sailkatu ginen igoera fasea jokatzeko. Beraz, 12 talde ari gara igoera lortzeko borrokan 6 taldetako 2 multzotan banatuta.

- **Golei dagokionez, errekor guztiak bausten ari zarete aurten.** - Bai, guztira 128 gol sartu ditugu eta 10 bakarrik sartu dizkigute guri, inoiz ez dugu horrenbeste gol sartu.

- **Zein izan da lortu duzuen emaitzarik nabarmenena?** 17 eta 1 irabazi genien Eibarko Urkikoei. Egia esan, futboleant dabilen bigarren urtea da eta nabari zitzaien, 'al patadon' jokatzen zuten-eta. Gure taldean, berriz, futboleant 7 urte daramatzaten jokalariak daude.

**Horren erraz irabazita ez al zarete aspertzen?** -Ez, gol asko sartzen ditugunean, partiduari bizitasun piska bat emateko entrenatzaileek atzelariak jartzen dituzte aurrelarien lekuan.

- **Dena den, zuen mailan ez al da-**

**go desoreka handiegia taldeen artean?** - Lehen fasean agian bai, baina igoera fasean guztiok daukagu antzerako maila. Igoera fasean jokatu dugun azken partiduan esaterako, bana berdindu genuen. Hala eta guztiz, finala jokatzeke itxaropen handiak ditugu, aurreko urteetan ere hala egin baitugu, nahiz eta finalean beti galtzea tokatu.

- **Zein uste duzu dela aurten horren ondo ibiltzearen arrazoia?** Ez dakit. Iaz Itziar Gurrutxagarentzat jokatzen zuen taldeak, jokalaririk onena bera baitzen. Aurten Eibarren jokatzen du, ordea, eta besteok bera gabe moldatzen ikasi behar izan dugu. Agian taldean jokatzen ikasi dugulako izango da eta erasora jokatzen dugulako, ahalik eta gol gehien egitera, alegia.

- **Taldeko kapitaina zara. Zeintzuk dira kapitainaren zereginak?** - Joko zelaian taldearen ordezkaria naiz; aktak sinatu, arbitroari eskua eman eta arazorik baldin badago, berarekin hitz egitea dagokit.

- **Zein da futbol talde bateko partaide izatearen gauzarik onena?**

- Talde giroa aipatuko nuke, elkarrekin primeran konpontzen gara. Afariak egiten ditugunean ere oso ondo pasatzen dugu. Aukera aprobetxatuz, 14 urtetik gorako neskek Mintxetara igotzera animatu nahi nituzke, gazteen beharra baitugu.

## K I R O L A L B I S T E A K

### • Igeriketa estiloen teloola hobetzeko hastarora

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak igeriketako estiloen teknika hobetzeko ikastaroa antolatuta du. Ikastaroa Kiroldegian izango da otsailaren 28an hasita. Guztira 14 saioko iraupena izango du. Astelehen eta asteazkenetan, goizeko 7:00etatik 8:00etarabarterean edo arratsaldean, 20:00etatik 21:00etara izango dira. Igerian dakiten pertsona helduei zuzenduta dago. Izena emateko epea otsailaren 25ean bukatuko da.

### • Bkloturisten kiteera otsadaren 20:m

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 20an, izango da 7. zikloturista irteera. Goizeko 10:00etan **Txankakua zubitik** abiatu, eta honako **hau izango** da egingo duten itzulia: Sorluze, Bergara, Arrasate, Kruzeta, Elorrio, Abadiño, Durango, Berriz, Areitio, Ermua, Eibar eta Elgoibar. Guztira 73 km. dira. Nahi duen edonork parte har dezake.

## ESEWLARTEW KIROLAK

### AGENDA (Otsailak 19. 14. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA (Ikastolan)

■ Benjamin ■

9:30 Pilar A- Ikastola A (Nesk.)

10:00 Herri Eskola A- Ikastola A (Mut.)

10:30 Ikastola B Mendar A (Mul.)

11:00 Ikastola D - Mendar B (Mut.)

11:30 Pilar A- Ikastola B (Nesk.)

12:00 Herri Eskola B- Ikastola G (Nesk.)

FUTBOLA 7 (Mintxetan)

ffi Alebin mutilak ■

Ezker zelai erdian

9:00 Ikastola B - Arno

9:45 Lagunak Ikastola A

10:30 Hamaikak Txiki - Ikastola D

11:15 Herri Eskola B Goiko Plaza

12:00 Mendar A - Txinpartak

12:45 Ikastola C - Jotake

■ Alebin neskek 111

Eskuin zelai erdian

9:00 Ikastola B- Pilar B

9:45 Pilar A Herri Eskola A (Mul.)

10:30 Tariarik - Txuri Urdin

11:15 Umora Ona Ikastola A

12:00 Pilar A- Ikastola C

SASKIBALOA (Ikastolan)

• Intantil mutilak ■

11:15 Ikastola A - Fleje

12:00 Pilar A - Arno

■ Intantil neskek ■

9:00 Ikastola B- Ikastola A

9:45 Ikastola C- Hamaikak Neskak

10:30 Pilar B - Kilimon



# G talde elgoibartar izango dira Eskualdeko tiveto Futbol Txapelketaren bigarrerri laseau

4 mailatan banatuta 52 taldek hartuko du parte

eskualdeko Areto Futbol Txapelketaren lehen edizioa jokatzeko ari da aurtun. Eibarren (Ipurua Kiroldegian edo Unibertsitate laboralean), Ermuan (Arizmendi frontoian edo M.A. Blanco Kiroldegian) eta Elgoibarren (Olaizaga Kiroldegian) jokatzeko dituzte



Eskualdeko L Areto Frabol Txapelketa 3 herritan ari da jokatzeko: Elgoibarren, Eibarren eta Ermuan.

eskualdeko taldeek elkarren aurkako partiduak. Lehen faseko partiduak jokatu ostean, 52 talde sailkatu dira aurrera jarraitzeko. Bigarren faseko partiduak duela 3 aste hasi ziren eta datorren otsailaren 19an, 4. jardunaldia jokatu da. Lehen fasean lortutako emaitzen arabera, 4 maila desberdinetan banatuta daude 52 taldeak; lehen maila, bigarren maila, hirugarren maila "A" eta hirugarren maila B. Bigarren fasean 6 talde elgoibartarrek hartuko dute parte: P.S.K., Patxi Taberna, Irion, Los Herminios, Spartak Pitxote, Kunta-Kinte eta Eusko Label. Ondorengo lehen maila bakoitzeko behin behineko sailkapenak eskainiko dizkizuegu:

## BEHIN BEHINEKO SAILKAPENA

### LEHEN MAILA

	Irab.	Gal.	Berd.	Puntuak
1-Open Club	2	1	..	0 .... 4
2-Bar Gure Toki	2	1	.	0
3-S.A	1	0	.	2
4-P.S.K.	<b>2</b>	<b>...</b>	<b>1</b>	<b>.... 0</b>
5-Drink Team	1	...	0	... 2
6-Doktor Pollo	1	.	0	.... 2
7-Deportes Justo	1	.	1	.... 3
8.Lurpe F.T.	3	.	.	1
9-Elur F.S	1	..	2	... 0
10-Pub Etxenagusia	0	1	....	2
11-Berriz	<b>0</b>	....	2	.... 1 .. t
12-La Tarantela	0	....	2	... 1

### BIGARREN MAILA

	Irab.	Gal.	Berd.	Puntuak
1-La Kolina	3	...	0	0 .... 6
2-Elur Malutak	3	.	0	.. 0 .... 6
<b>3-Patxi Taberna</b>				
<b>4-Irion</b>				
5-Basajaunak	2	..	1	.... 0 .... 4
6-Garma's	2	....	1	.. 0 .... 4
<b>7-Los Herminios</b>				
8-De la Buena	1	..	2	.. 0 .. 2
9-Cherokee Team	1	..	2	.. 0 .. 2
10-Excalibur	0	..	3	.... 0 .... 0
11-Perlaskos	0	....	3	.. 0 .. 0
12-Hermi's EC.	0	....	3	.. 0 .. 0

### HIRUGARREN MAILA "A"

	Irab.	Gal.	Ber.	Puntuak
1-Pethaphtnaikos	2	.	0	.... 1
2-Haritz	2	1	....	0
3-R. oso takata B.	2	....	1	.. 0
<b>4-Spartak Pitxote</b>	<b>2</b>	<b>....</b>	<b>1</b>	<b>.... 0 .... 4</b>
5-Sin Perdon	2	..	1	.... 0
<b>6-Kunta-Kinte</b>	<b>1</b>	....	<b>1</b>	<b>.... 1</b>
7-Kashima Brewers	1	....	1	.. 0
8-EI Resto	1	..	1	.. 0
9-Horacio F.C.	1	..	2	.... 0
10-Zordunak				
11-Garrufos	1	.	2	0
12-Lutec F.S.	1	.	2	... 0 .. 2
13-Deseansa jornada	0	.	0	0
14-Ganbara eliminado	0	..	2	0

### HIRUGARREN MAILA "B"

	Irab.	Gal.	Ber.	Puntuak
1-Barrenkale	3	....	0	.... 0 .. 6
2-Aixa	3	..	0	.. 0 .... 6
3-The Ravel's	3	....	0	.... 0 .. 6
4-Guria Elec.	2	....	0	.. 0 .... 4
5-Real Mehy's	1	....	1	.... 0 .. 2
6-Culebrilla 2000	1	....	2	.... 0 .. 2
7-Brujeria	1	.	1	.. 0 .. 2
8-Cafeteria Arkupe	1	.	2	.. 0 2
9-Esteagua de Solares	1	....	2	.... 0 .... 2
10-Eusko Label				
11-Deabruak	1	2	....	0 ... 2
12-Descansa jornada	0	..	0	.. 0 .... 0
13-Os Xiringas	0	...	1	.. 0 0
14-Club Deportivo	0	....	3	0 .. 0

EMAITZAK	
<b>Futbola</b>	
UPV 0- Haundi 0 (3. maila)	
Elgoibar 3- Cruces 1 (Jub. E.L.)	
Elgoibar 3- Sto.Tomas Lizeoa 0 (2. kad.)	
Elgoibar 1- Ostadar 1 (Neskak)	
Amaikak Bat 2- Elgoibar 1 (1. erreg.)	
Lagun-Onak 4 -Elgoibar 0 (Oho. inf.)	
<b>Eskubalola</b>	
Gaur Elg.19 - I.T.E. Hondarribia 13 (Kad. mut.)	
<b>L.M.S. 16 - Ermua 11 (Senior nes.)</b>	
I.M.H. 25 - Ormaiztegi 20 (Senior mut.)	
Oiarso 12 - Pagoaga Elg. 19 (Kad. nes.)	
Umietako K.E. 11 Tecno. Elg. 30 (Kad. mut.)	
Oiarso 7- Unceta Elg. 14 (Jub. nes.)	
AlmenJakion 24 -Pneumax Elg. 23 (Jub. muL)	
<b>Areto Futbola</b>	
Zur Ta Lur 7- Asador Guenetxea 1 (Auton.)	
Zur Ta Lur 1- Iceberg 1 (1. maila)	
<b>Pilota</b>	
<b>Debarroko Txapelketa</b>	
Utazia/Loiola 16	
Astigarraga/Uria 22 (Kad.)	
Balzola/Lasagabaster 14	
Elizegi/Bastida 22 (Nag.)	
<b>Idarraga Kafeak 3. saria</b>	
<b>HAWIDIKO jokalarierregularrena 99/00</b>	
JOKALARIA	PUNTUAK
1- Aranberri	29
2-Zulaika	28
3- Castro	25
4- Polo	21
5- Alberdi	20
6- Loren	20
7- Caslillo	17
8- Bravo	16
9-Ibarluzea	16
10- Diaz	15
11- I. Leonardo	12
12- Bague	11
13- Guarrotxena	6
14- Ruiz	5
15- Manolo Ramos	4
16- Alkorta	4
17- Txasio	4
18- Caro	4
19- Edu	4
20- Fernandez	2
21- Mikel	2
<b>AGENDA</b>	
<b>Futbola, Mintxetan</b>	
<b>Larunbata, 19</b>	
15:00 Pedrusko -Amaika Bat (1. erreg.)	
17:15 Haundi - S.D. Eibar (3. maila)	
Egandea, 20	
16:30 Elgoibar - S.O. Eibar (Oho. inf.)	
<b>Eskubaloia, Kiroldegian</b>	
Larunbata, 19	
16:00 Unceta Elg. - Kukullaga (Jub. nes.)	
17:30 Pagoaga Elg. - Kukullaga (Kad. nes.)	
19:00 Pneumax Elg. - AloriaMendi (Jub. mut.)	
<b>Igandea, 20</b>	
12:30 Teknometeka Elg. -Almen (Kad. mut.)	
<b>Pilota, Ikastolako frontoian</b>	
Asteartea, 22	
20:00 Lagunak - Eibar	

# R. 2 Li

## Hegoaldeko doinuak

**L**uzea izateagatik eskolatik bota zituen Leonard Skinner izeneko irakasle batek. Berataz trufatzeko asmoz Lynyrd Skynyrd izena jarri zioten **taldeari**. **Southern** Rockaren aitzindaria **dugu** Floridako zazpikotea. 1977an hegazkin istripuz Ronnie Van Zant abeslaria hil zenean taidearen ibilbidea eten egin zen denboratdi baterako. 1991. urteaz geroztik, anaiak Johnny Van Zantek hartu du lekukoa. Pasa den abuztuan argitaratu zuten, "Edge Of Forever" lana.

Lehengoa ez bada ere, Lynyrd Skynyrd ezagutzen duenak espero zezakeena entzun daiteke disko honetan: bluesaren eragina duen hard-rock bizia. "Working" en lehen notak entzun orduko **EEBBeko** hegoaldea datorkigu **gogora**. "Preacher man" eko gitarra riffek hard-rockaren indarm dute oinarrian. Azpimarratze-koak dira "Rough around the edges" en melodia eta sentimendua. Disko honetan ere ez da baladarik falta, "Tomorrow's goodbye" k eritimo lasaietan eta armonia malenkoniastuetan murgilizen gaitu.

Taldeko azken aroaren ildotik, hard-rocka jorratu du Lynyrd Skynyrd, baina ez edonolakoa, benetako Southern Rocka baizik.

**Ion Gurrublaga Arakistain**



## "40 ezetz euskal laburnietraia eskainiko otsailaren 24an Ongarri Zine Klubeko pelikularekh IDEUria Aurrerantzean ere hilerobotako dute laburmetraia oat

*Ongarri Zine Klubak, datorren asteko pelikularekin batera, otsailaren 24an, laburmetraia bat eskainiko du. Joan den urtarrilean egitasmo hau martran jarri zutenetik Ongarriko zinezaleek laburmetraia emango duten bigarren aldia izango da. Izan ere, aurrerantzean hilean behin, laburmetraia bat ikusteko aukera izango da Elgoibarren. Pasa den hilabetean, "Hongos" ikusgai izan ondoren, datorren astean laburmetraia euskaklun baten txanda izango da, "40 ezetz" izenburukoarena hain justu. Ohi bezala, emankizuna gaueko 21:30ean hasiko da.*



*Aurrekoan "Hongos" laburmetraia izan zen ikusgai eta oraingoan "40 ezetz" euskaldunaren txanda da.*

**E**gitasmo honetan Zornotzako "Zornotza Aretoa", Elorrioko "Arriola Kultur Aretoa" eta Elgoibarko "Ongarri Zine Kluba" daude. Proiektu hau martxan jartzeko ideia Zornotza Aretoan sortu zen. Horrela, aipatutako hiru herrietan, Euskal Heniko nahiz kanpoko laburmetraiak eskaintzeko asmoa dago. Guztim, Ongarri Zine Klubekoek aurtengo denboraldia bukatzerako 8 tilm labur emateko asmoa dute.

Datorren osteguneko laburmetraia, Telmo Esnalek eta Asier Altunak egindako "40 ezetz" da. Bi zinegile gazte hauek "Txotx" izenburuko aurreko lanarekin ezagunak egin ziren. Izan ere, sagardotegian girotutako beraien laburmetraiak arrakasta lortu zuen eta sari bat baino gehiago eskuratu zituen. Zine-

zaleek Elgoibarren bertan lan hau ikusteko aukera eduki zuten. "40 ezetz" izenburuko **lan** herri honetan, idi demetan girotutako istorioa kontatzen dute, eta ez da tarlean aposturik faltako.

### Emanaldi berezia


Bestalde, datorren osteguneko pelikula, Bertrand Tavernier-en "Hoy empieza todo", bezperan, otsailaren 23an ere emango da, Emanaldi berezia izango da, Ongarri Zine Klubak antolatuta, herriko ikastetxeen laguntzarekin, pelikulak irakaskuntzaren gaia lantzen duelako. Pelikula ikasle, irakasle nahiz gurasoei zuzenduta dago, baina hauetaz gain, nahi duenak joateko aukera izango du. Filmea, ohi bezala, 21:30ean hasiko da.

## ape operadorea izateko ikastaroa an2clatu du Udaleko Kultura Sailak

Udaleko Kultura sailak zine operadore ikastaroa antolatu du. Bertan parte hartu nahi duenak martxoaren 10a baino lehen bidali behar du cuniculuma Kultur Etxera, bertan dagoen Kultura Sailera. Aurkeztu ahal izateko beharrezkoa da elektronika jakitea.

Ikastaro hau egiteko plazak mugatuak dira. Lehendahizi, herriko Kultura Sailekoek, jasotzen dituzten curriculumak aztertuko dituzte eta jaritako irizpideen arabera, ikastaroa nonzuk egingo


duten erabakiko dute. Kultura sailetik adierazi digutenez, zaila izaten da zine operadore izateko ikastaroak gertu topatzea: berez ez da inon irakasten eta norbaiti erakusteko propio antolatu behar izaten dira ikastaroak. Halaber, ordu dezente hehar dira zine proiektorearen funtzionamenduaren berri jakiteko eta horregatik, pertsonak banaka erron hehar dira irakaslearekin. Beraz, aukeratuak diren pertsonak banan bana egingo dute ikastaro hau.





# Ardas ia

**JOANA IBARLUZEA**



- Nola erabaki zenuen ikasketa hauek egitea?  
- Zer ikasi behar nuen aukeratzeko ordua etorri zenean, institutuko psikologoak hainbat posibilidade aurkeztu zizkigun eta horien artean Elikagaien Industria moduloa zegoen. Markinan ikasteko aukera neukan eta gainera polita zirudien, beraz, honetan hastea erabaki nuen.

- Zertan datza "Elikagaien Industria" delako moduloa?

- Bi urteko moduloa da. Gaur egun jateko dauzkagun ohiturak aldatu egin dira, produktu gehiago daude eta elikagaien inguruko legedia ere gero eta zonotzagoa da. Hori dela eta elikagaiak aztertu egin behar dira merkaturatu aurretik. Modulu honetan elikagaiak aztertzen erakusten digute eta horretaz gain, baita lan mundurako prestatzen, kalitatea eta baita logistika ere. Azken honetan almazen batean elikagaiak nola antolatu behar diren ikasten da batez ere.

- Markinan ikasten duzu, ezta?

- Bai hala da. Hemen inguruan ez dakit modulo hau beste inon dagnan. Modulo berri xamandakoa da. Klasean 20 lagun inguru gaude. Gure arteko giroa oso ona da, baita irakasleekin daukagun harremana ere. Hirugarren promozioa da gurea eta irten direnetatik asko jadanik lanean daude.

- Praktikak egiten al dituzue?

- Bai, bigarren ikasturtean, otsailetik aurrera inguruko enpresetan egiten ditugu. Praktiketarako aukera ezberdinak daude. Laborategi batean produktuak analizatzen lan egin daiteke, ikerkuntza eta garapen arloan, almazen batean elikagaiak non kokatu behar diren pentsatzen eta antolatzen, eta baita litatean ere.

- Zein da zuri gehien gustatzen zaizun arloa?

- Nik uste dut laborategi batean lan egingo nukeela gustura, gauzak analizatzen. Ikerkuntza eta garapen arloan lan eginez gero, produktuak nola hobetu daitezken eta jendearen eskariei nola erantzun ikusten da, beraz, horretan aritzea nahiko nuke.



## IKASGAIAK

### LEHENENGO MAILA

17 Logistika

- Elikagaien industriako prozesuak eta Produkzio unitate baten antolamendua eta kontrola
- Kalitatearen kudeaketa
- Elikagaien mikrobiologia eta kimika
- Elikagaien industriako produkzio sistema automatikoak
- Lan prestakuntza eta orientabidea
- Ingelesa

### BIGARREN MAILA

- Elikagaien elaborazioa
- Ingurugiroa babesteko teknika
- Elikagaien merkaturatzea
- Lan giroko harremanak
- Lantokiko prestakuntza

- Aurrerantzean non ikusi nahi zenuke zure burua?

- Ikasten jarraitzea nahiko nuke, baina praktikak egin eta gero, eta gaur egungo egoera ikusita, lana aurkituko banu ikasten jarmitu edo lanean hasi planteatuko nuke.

- Lan mundura begira zein irteera dauzka modulo hau ikasten duenak?

Sanidade arloan legeak gero eta zorrotzagoak dira, beraz, guk azterketak egin ditza-kegu lege horiek betetzen diren ala ez frogatzeko. Horretaz gain, almazen batean edo enpresen gampenean ere lan egin dezakegu. Elikagaien industrian hainbat alorretako gestio lanak egiteko, produkzio prozesuak antolatzeko, kalitate kontrolerako, ingurugiroa babesteko eta elikagaien salerosketa ihardueretan laguntzeko prestatzen gaituzte.

- Nola ikusten duzu elikagaien mundua gaur egun?

- Jaki naturalak beti dira hobeak, baina transgenikoak ere hor daude. Bakoitzak bere abantailak eta desabantailak ditu. Zein aukeratu pertsona bakoitzaren arabera da, baina nik naturalak nahiago ditut oraindik ez dakigulako transgenikoek zein ondorio dituzten, hala ere, jaki naturalak gero eta garestiagoak dira.

- Norbaiti gomendatuko al zenioke modulo hau egitea?

Bai, batez ere zientzia arloa gustuko dutenei. Izan ere, espero ez diren gauza asko ikas daitezke. Nik batxilergoko bigarren mailan zalantzak izan nituen Ietretako edo zientzietako bidea aukeratu erabakitzerakoan, baina zientziak hartu nituen eta aukera ona egin nuela ohartu nintzen. Orain pena bat daukat modulo honetan ez dago matematikako ikasgairik eta nik gustuko nituen matematikak.

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

An bulategia:

Larrialdiak ..... 943 461111  
Txanda hartzeko 943 743354  
Planning-a ..... 943 742950  
Alkoholiko Anommoak . 943740385  
D.Y.A (anbulanzia) . 943 464622  
Gurutze Gorria .. 943 743864  
Mendaroko Ospitalea 943 032800  
Odol Emaileak .. 943 743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442  
PESA (Eibar) 902 10 12 10  
Taxi geltokia . . 943 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua. 943 744366  
Udal Kirol Patronatua. 943 744415  
Kultura Zerbitzua.. 943 742158  
Mendaroko Udala .. 943 756100  
Ongizate zerbitzua .. 943741008  
Udaletxea ..... 943 741050  
Udaltzarngoa .. 943 741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . 943 741626  
Kiroldegia ..... 943 744415  
Kontsumo Bulegoa . 943 743088  
Liburutegia ..... 943 743525  
IVlusika Eskola 943 742145  
Mintxeta ..... 943 744315  
Parrokia ..... 943 740842  
Postetxea ..... 943 741547  
Gaztetxea ..... 943 743572

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza. 943 740296  
Zaharren Biltokia .. 943 740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola . 943 74 21 41  
HHI (EPA) . . 943 74 08 80  
Herri Eskola . 943 74 08 79  
I.M.H. 943 74 41 32  
Herri Institutua  
Arreiturre 943 74 02 67  
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19  
Ikastola ..... 943 74 44 41  
Pilar Ikastetxea..... 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN..... 943 74 41 12  
El Diario Vasco 943 74 40 73  
El Gorreo Español.. 943 74 10 82  
Zazpiki irratia .. 943 74 34 74

## 18 ostirala

18:30 ODOLATERALDIA  
Migel Urruzuno 8an

22:15 ZINEA  
"Ana y el rey"

22:30 DIAPOSITIBA  
EMANALDIA  
"Lasa-tik Katmandura  
bizikletaz"  
Gaztetxean

## 1 larun a a

08:00 ADARRA  
**MENDIRA eta  
SAGARDOTEGIRA  
IRTEERA**  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.  
Irteera: Txankakua zubitik

19:30-22:15 ZINEA  
"Ana y el Rey"

## 20 igandea

10:00 ZIKLOTURISTEN  
IRTEERA  
Txankakua zubitik  
Antolatzailea: Lagun Taldea

19:30-22:15 ZINEA  
"Ana y el Rey"

## 21 aste e ena

13:00 ABSTENTZIOAren  
ALDEko MARTXA  
Plaza Handian

17:00 HITZALDIA  
Gaia: Bideko segurtasuna  
Jubilatuena Biltokian  
Antolatzailea: Kutxa

22:15 ZINEA  
"Ana y el Rey"

## 22 asteartea

19:30 HITZALDIA  
Gaia: Etxeko istripuak  
Hizlaria: Mikel Lizarralde,  
Gurutze Gorriko kidea  
Jubilatu Etxean

19:30 BATZARRA  
Antolatzailea: Gutun  
Sozialaren Aldeko Plataforma  
Kultur Etxean

## 23 asteazkena

21:30 ZINE KLUBA  
"Hoy empieza todo"  
Antolatzailea:  
Ongarri Zine Kluba  
Laguntzaileak: Herri Eskola,  
Pilar Ikastetxea eta Ikastola.

## 24 osteguna

19:00 HITZALDIA  
Gaia: Gutxiegi jatearen  
arazoak: Anorexia eta buLi-  
mia  
Hizlaria:  
Marta Agirre doktorea  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Haizea E.T.

21:30 ZINE KLUBA  
"40 ezetz" laburmetraia  
Ondoren,  
"Hoy empieza todo"

## 25 ostirala

20:30  
SAGARDOTEGIRA  
IRTEERA  
Irteera: Madalako parketik  
Antolatzailea:  
Gazte Asanblada

22:15 ZINEA  
"Asterix y Obelix contra el  
Cesar"

R ■ 111 ..... al ■ 111 ZEIN ■

ZINEA



**Zuzendaria: Andy Tennant.**  
**Antzezleak: Jodie Foster,**  
**Chow Yun-Fat, Bai Ling.**

### Anna y el rey

1956. urtean filmatutako pelikularen bertsiio berri bat da honako hau, oraingoan aktore nagusiak Jodie Foster eta Chow Yun-Fat dira. XIX. mende bukaerako Thallandian kokatzen da istotioa. Siameko erregeak Anna Leonowens etxe-irakasle britainiatara kontratatu du bere 58 semeen bezketaz arduratzeko. Kultura eta obitura ezberdinak dituzte erregeak eta irakasleak, eta behin baino gehiagotan kostako zaie ados jartzea.

RI ..... R ..... 11111 111 ■ 111 ■



• **Oonostiara egun pasa HAIZEAkoekin, martxoaren 12an**

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, naartxoaren 12an, igandea, Donostiara txangoa egingo dute. Egitaraua honakoa izango da; lehenik bainua 'La Perla' bainuetxean. Ondoren, bazkaria eta azkenik Aquariumera bisita. Bidaiaren prezioa 6.500 pta.koa da, baina biclaia, janariak eta 'La Perla'ko eta Aquariumeko sarrerak prezioaren barruan daude. Izen-ematea otsailaren bukaera baino lehenago egin beharko da 'Pitxintxu' dendan.

• **Atxutxi @ zapatuetan egitasmoan fzena emateko epea zabalik da**

Atxutxiamaika Begirale Taldetik adierazi digutenez, Atxutxi zapatuetan egitasmoan parte hartzeko epeak zabalik jarraitzen du. LHko 4-5-6. mailetako ikasleei zuzenduta dago, eta Otsailaren 26an, eta martxoaren 11, 18 eta 25ean egingo dira Atxutxi zapatuak. Prezioa 3.000 pta.koa da eta izen-ematea Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4, behe) egin daiteke edo 943 74 16 26 telefonora deituz.

• **Abstentzioaren aldeko martxa hilaren 21 ean pasako da Elgoibartik**

Martxoaren 12ko hauteskunde orokorrak direla-eta, abstentzioaren aldeko kanpaina bultzatzen duen martxa pasako da Elgoibartik astelehenean, hilaren 21ean. Gutxi gorabehera eguerdiko 13:00etan ailegatuko da 13 autoz osatutako martxa Elgoibarrera, baina ez dago ordua guztiz zehazterik. Plaza Handian kanpainari buruzko informazioa banatuko dute. Ildo beretik, bihar goizean, hilak 19, abstentzioari buruzko panel informariboak eta beste zenbait ekintza prestatu dituzte EH alderdiko kideek. Ekintzak Plaza Handian izango dira.

• **Gutun Sozialaren Aldeko Plataformaren batzarra**

Datorren asteartean, hilaren 22an, Gutun Sozialaren Aldeko Plataformak batzarra egingo du Kultur Etxean arratsaldeko 19:30ean. Gai ordena honakoa izango da: Gutun Sozialaren egoera (Parlamentuan eta gizartean), Elgoibarko Udalean eztabaidatuko den mozioa (Plataformak aurkeztu zuena), lantaldeak finkatzea eta bileren maiztasuna.

• **Lurki elkarteak antolatutako oinarrizko buztin ikastaroa**



Martxo eta apirila bitarterako, 'Lurki' elkarteak, Udalaren laguntzaz, oinarrizko buztin ikastaroa antolatu du Aita Agirre Plazan duen egoitzan. Klaseak martxoaren 6an hasiko dira, asteleheneetik ostegunetara

eta arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero Aita Agirre plaza, beheara jo.

• **5. "Barrikoteau Kimetz Elkarte, hilaren 26an**

Otsailaren 26an, larunbata, 5. 'Barrikotea' izango da Kimetz Elkarte. Sargardotegietako ohiko jakiez osatutako afaria gaueko 21:00etan hasiko da. Bestalde, afarira joan daitezkeen lagunen kopurua mugatua denez, txartelak ohiko tabernetan aurrez erostea komeni da.

• **Labeko esmalte ikastaroa**

'Egur' arte tailerrak Elgoibarko Udalaren dirulaguntzaz, labeko esmalte ikastaroa antolatu du. 30 orduko iraupena izango du martxoaren 1 ean hasi eta eta 21era arte luzatuko den ikastaroak. Orduetgia arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartekoa da. Ikastaroan parte hartu nahi duenak 'Egur'rek Ubitarte Plazan duen egoitzan eman dezake izena arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

**FARMAZIAK**

- Egunez Gaez
- 19 \*Eleberria Fernandez** (Errosario kalean)
- 20 \*Elxeberria Fernandez** (Errosario kalean)
- 21 Yudego Yudego**
- 22 Zabaleta Zabaleta**
- 23 Etxeberria Etxeberria** (Errosario kalean)
- 24 Escala Escala**
- 25 Bidasolo Bidasolo** \*(eguerdiko 2ak arte)
- ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
- J. IGNACIO FERNANDEZ** Herriko enparaniza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
- OKINDEGIA**
- 20 igandea Fotero**

111 111 • ER • • • RRIE • • •

**ONGARRI**  
zine kluba



**Zuzendaria: Bertrand Tavernier.**  
**Antzezleak: Philippe Torreton, Maria Pitarresi.**

**"40 Ezetzu (Laburmetraia)**

Asier Aitunak eta Telmo Esnalek zuzenduta.

**"Hoy empleza todon**

99ko Berlingo Zinemaldian atTakasta handia izan zuen pelikula da. Frantziako haur eskola bateko baldintza kaxkarrak salatzen ditu. Meategiak itxi egingo dituzte eta familia asko bizi baldintza eskasetan geldituko dira. Haurrek ere krisia sufrituko dute. Daniel eskolako irakaslea da. Egoera latza izan anen, umeengan ilusioa eta kuriositatea piztea da bere asmoa.

## Lana

### 1111 ~ ~ ~

#### ◆ ESKAINTZA ◆

- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko, tr 943 74 13 18
- Neska hat behar da bi utne zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. wr 943 74 00 35 (Goizeku 10:00ak eta 12:(X)ak bitartean deitu. Lourdes)

#### ◆ ESKAERA ◆

- Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da peasona gaixoak edo edadetuak zaintzeko, etxean nahiz ospitalean, Egunez edo gauzez. 1T 943 74 27 78 (Itzian)
- Umeak edo nagusiak zaintzeko neska eskaintzen da. Esperientziarekin. sEr 943 74 06 12
- Esperientziadun neska eskaintzen da gaixoak eta pertsona nagusiak zaintzeko. •rr 630 75 44 47 (Mertxel)
- Neska esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Egunean 2 ordu. ts 609 52 68 69

**e** Umeak zaintzeko neska eskaintzen da. E. sperientziarekin, 71. 943 74 34 68 (Silvia)

- Neska eskaintzen da armisaldez lan egiteko. 17 943 74 18 72 121:00e(atik annera deitu. Arnagoial)
- Neska eskaintzen da orduka plan-txa egitekar 667 34 86 07 (Sandra)

## Bestelakoak

\*Gaz(etxerako aulkiak eta mahaiak behar dira. Soheran izan eta ematea nahi baldin haduzue deitu. Jasotzera pasako gara. 1s 943 74 35 72

Ikasle pisua osatzeko jendea behar da. 2 logela iihre. tr 943 62 53 77 (Fernando)

- Haurren hetaurrekoak galdu nituen duela 3 aste Kiroldegitik Ikastolarako bidean. 943 74 38 29 (Mariaje)
- Otsailaren 13an bastoia galdu nuen San Pedro hailerako plazan. Ahate huru hat dauka heldulekuan. a 943 74 01 75
- Otsailaren 5ean unie baten Athletieeko kamiseta galdu nuen Mimetan. tr 943 74 28 64
- Katu pertsa neskalagun hila dabil aldi baterako harremanetarako. Tr 677 76 65 48

## Garajeak

- Garajea salgai Pista Beltzean. 72 943 74 00 39

## Oharra

Merkato txiktrako obarrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten cliZuOgu.

## Etxebizilzak

- Logelak akikatzen ditut. Sukalde erabiltzeko aukera. tr 943 74 24 06
- Etxea salgai Unisandin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde, balkoia eta ganham. 72 943 74 15 42
- Etxea salgai Muguruza kaleko 26. zenbakian, Tr 943 85 08 92
- I'isu txikia edo huardila alokatu nuke. Tr 617 68 53 99
- Pisua salgai Eiharren, vr 609 95 16 41
- Pisua salgai Szuna Ana kalean. 3 gela ditu. s 943 74 41 35
- Etxebizitza alokatzen da Dehan ekainera bitartean. :a- 943 74 13 39 (Ane)

## Agurrak

- Zorionak Alejandro Rejasi, otsailaren 10ean urteak bete zituelako. Familiaren partez.
- Zorionak Aguslini, hilaren 10ean urteak bete zituetako. Tarea gutxiago hidali L.H. 6. mailakooi! Bastoia ha al daukazu etxean ala erosiko du-gu?, 6, mailako nesken partez.
- Illorako neskarik politenari, Elgoiharsik besarkada bat. Animo Elas eta zorionak!
- ◆ Zorionak Itsasori, otsailaren 17an, 12 urte bete zituelako. Alazneren eta Lararen partez.

Zorionak Maribeli, ea goxoki batzukin ospatz.en dugun. Landa familiaren partez.

• Zorionak Iratse Osorori Ikastolako 5. mailako ikasleen partez. Ondo pasa!

◆ Zorionak Aintzane Larreategi, txistuko irakasle mundialari eta bere senar kuttunari. San Balentin egunean ondo pasa zenutelakoan, zure ikasle kuttun eta mai(agarriak: Leire, Antton eta Enara.

\*Zorionak Xabier Arakistaini, otsailaren 17an urteak bete zituelako. Neska baten partez.

• Zorionak Alejandro Gonzalezi, gaur, otsailak 18, urteak bete zituelako. Familiaren partez.

• Zorionak Sara Perez-i, hilaren 16an, 12 urte bete zituelako. Alazneren, Itsasoren eta Lararen pmez.

• Zorionak Sisiri, hilaren /6an urteak bete zituelako. Ane eta Lararen partez. Ondo pasa urtehetetze eguna.

## Agurrak



• Zorionak Jonathani, hilaren 13an, 5 une bete zimelako. Gurasoen, amonaren eta anaf-arreben partez.

#### ◆ Zorionak

Asier, zure egunean txotx eg, in gure partez eta ondo pasa sagar-dotegian. Lane-koak,



• Zorionak Gaur baino gazteagoa ez haiz sekula izango eta ondo zelehrau urtehetetzea. Baina kontuz! Bestela, aste-Iehena berriz ere ohean pasa behar-ko dok eta! Lankideak.



◆ Zorionak Mikel Garateri, gaur, hilak 18, 4 urte bete dituelako. Familiaren partez.

• Zorionak Ikeri, hilaren 24an, 8 urte beteko dituelako. Familiaren, gurasoen eta aiton-amonen partez.



◆ Zorionak Nagoreri, utsailaren 13an here lehenengo urtebetetzea izan zelako. Familiaren eta bereziki Mainerren partez.

◆ Zorionak Ane Arakistaini, hilaren 20an, 5 urte beteko dituelako. Nairaren eta Jonatanen partez,



\* Zorionak Iker Gonzalezi, ren 21m, 5 urte beteko dituelako. Familiaren partez.

• Zorionak eta inuxu handi bat gaur here lehen urtebetetzea ospatzen duelako. ren eta hereziki Ireneren partez.



• Zorionak Asier Odriozolari, bihar, hilak 19, 5 urte beteko dituelako. Gurasuen, Ionon eta familiaren partez.



◆ Zorionak Juan eta Kontxiri zuen urrezko eztaiak direla eta. Eskerrik asko zareten bezalakoak izateagatik. Muxu handi hat hihotz hanenetik. Familiaren partez.



• Zorionak Kristinari, ostegunean 8 urte bete zituelako. Familiaren panez.

I Zorionak Lorea Argarateri, hilaren 14an, 10 urte bete zituelako. Abizpainen eta familiaren partez.



• Zorionak tratxe Osorori, gaur, hilak 18, 11 urte beteko dituelako. Mariaren etxeko guztien partez.

• Zorionak Alex Solari, otsailaren 16an urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki ilohen partez.



◆ Zorionak Anari, otsailaren 13an, 6 une bete ziatelako, Gurasoen eta familiaren partez.

\*Zorionak Borjari, hilaren 22an, 9 urte beteko dituelako. Gurasoen eta anaia Ignacioren partez.



• Zorionak Yolanda Coronadori, hilaren 17an, urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki ilohen partez.



# KANDALO ♀

## Orain San Bartolome 9an gaude



*Figfort*

**Avet**  
LINGERJE

PRINCESA



GAREL

Kortseteria

Barruko arropa modernoa

Gurutze-puntua: hariak eta osagarriak

Ohialak



# ihauterietako ohialak

S kandalo

Oihalak eta Mertzeria

San Bartolome, 9

Tel. 943 74 35 95





# BIKAIN

## AHOLKULARITZA

**BAZKID E**

2000ko KI DEA  
(C.D ELGOIBAR)



2000. ou41/071Weo ~

Zalteudt1.(4

1.  
1110

Aholkularitza Eta kontsulta zErbitzua

CKontablea)

(Fiskala

(Lan arlokoa)

(Juridikoa)

(MERkatal arlokoa)

FISKALA • LABORALA • KONTABLEA

Antonio Arrillaga, 4 behea

Tel. 943 74 45 57

Faxa: 943 74 04 08

20870 Elgoibar

Gipuzkoa

Bideragarritasun planak

AsEguruak

AgEntzia bidEzko banka zErbitzua